

# H Arte Garaikideko Hiztegia

## Hiperrealismo edo errealismo fotografikoa

Ekintzako arte eta arte kontzeptualeko mugimendu abstraktuaren kontrako erreakzio bezala, eta pop-artean egiten zen gauzen erreproduzio afirmatiboarekin eta neodadaismoan kontsumo-materialari emandako tratamendu kritikorekin bat eginez, berriz ere pintura errealistara itzultzeko joera bat sortu zen, 1972ko Dokumenta V.ak horretara bultzatuta bereziki. Errealismo neketsu hau, bere argazki-lente eta bere objektibo angularreko perspektibekin, ekialdeko kostako artista iparramerikarren hard-edge-pop-art-earekin lotzen da bere figurazio supergarbian, adibidez Wayne Thiebaud eta Mel Ramos artistekin. Aldi berean joera kritiko honek badu parekotasun bat hogeiko urteetako objektibitate berriarekin. Hiperrealismoaren fenotipo honek, artearen historiako bere aurrekoenak bezalaxe, hain espektru zabala eta anitza hartzen du ezen bere pintura eta bere eskulturaren baitako funtsezko gai bihurtzen baititu errealitatearen ilusioa eta ilusioaren errealitatea.

Lehendik objektibitate berriaren ordezkari satirikoez, Otto Dix eta George

Igor Makarevich, "Retrato de I. Chulkov".  
212 x 137 x 8 cms., 1981.



Grosz-ek, erabilia baitzuten bide hori, exagerazioaren metodoak erreproduzio errealista egiteko modu berri bat sortu zuen, jadanik errealitatearen ilusiozko erreproduzioan oinarritzen ez zena, inpresionismo naturalista oinarritzen zen bezala, baizik eta errealitate horretan begi zorrotzarekin sartu bere izkutuenerako muineraino, eta horren kontzientzia hartu nahi zuena. Bide beretik joan ziren errealismoaren joera berriak ere, errealitatea zerbait erlatibo eta manipulagarri bezala erreproduzatu nahi zutenak. Pintorearen jarduna ez da arte-obraen gezurrezko izaera erreproduzazioarekin atzean gordetzen, baizik eta kontzientzia esperimentazioarekin produktu bat bezala da azaltzen. Koadro horregatik, behin bukatua dagoenean, errealitatearen suntsipen eta berrespen egiten da aldi berean, izan ere errealitatea plasmazten baitu lente optikoaren doitasunarekin, eta gizakiaren begiak baino zorrotzago ikusten baitu horrek. Pintatutako errealitate-puskaren superraztasun honek, errealitatearen afirmazioaren bitartez aldi berean zera ematen ditu, ezadostasuna eta plasmaztutakoaren gain gogoeta egitera daraman uruntasun-tarte arrotza. "Benetako gauzak berak baino benetakoagoa" aldarrikatzen du joera errealista honek, eta bere pinturarekin saiatzeko argitzen ezen esperientzia optikoa ez dela aski gauzak konprenitzeko eta, areago, egoera erabakiorrenetan ezetsi ere egiten duela. Errealismo kritikoa, figurazio berria den aldetik, azalpen-aniztasun aberatsa aurkitu du arte-mundu amerikarrean bezala europarrean ere. Azken garaietako ezein korrante artistikok ez du izan ilusioaren errealitatean sartzen den errealismo honek adina ordezkari. Howard Kanovitzek, errealismo iparramerikar berri honetako lehenengoetako artista den honek, esaldi honekin, esaldi hain bipil eta adierazgarri honekin, laburtu zuen bere ahalegin artistikoa: "Gauza guztiak dira diren bezalako, eta hala ere ez dira guk ikusten ditugun bezala". Ipar Amerikako ordezkari ezagunenen artean, Kanovitz ondoan aur-

kitzen ditugu: John de Andrea, Richard Artschwager, Robert Bechtle, Claudio Bravo, Chuck Close, Alex Colville, Robert Cottingham, Don Eddy, Richard Estes, Franz Gertsch, Ralph Goings, Duane Hanson, Richard McLean, John Salt, Ben Schonzeit eta Paul Sarkisian; europarren artean daude, Jean-Olivier Huclidean, Fritz Köthe, Jorge Steyer eta "Zebra" taldea. Artista guzti hauek oso teknika subjektiboa erabiltzen dute errealitatearen ikerketan. Engainuaren momentua erabiltzen dute, baina ez inpresionisten modura, kontzientziazioa eta distantziamendua sortzeko bide bezala baizik, hau da, ilusio bezala ez eta pertzepzioan izaten den engainu-mailaren indize bezala baizik, beti egoten baita presente engainu hori, oso gutxi meditatua izanik beti.

## Idazkera automatikoa

Hizkuntz sormenerako prozeduretako bat da idazkera automatikoa; poesia eta literatura surrealista asmatu zuen prozedura hori, eta gogamenaren kontrolerik kanpora geratzen da hipnosi bidez murgilduz ametsen eta ameskizunen munduan. Psikologian automatistikoak esaten zaie, kanpoko erlazio kausal eta nabarmenik izan gabe, eszitazio-prozesu barneko eta espontaneo bezala azaltzen diren fenomeno guztiak. Surrealismoak, zalantzarik gabe Sigmund Freuden ikerketa psikoanalitikoak erabiltzen baititu bere sorkuntzaren teoriarentzako oinarri bezala, psikoanaliaren kontzeptio-modu zientifikoa eta berezitu hartzen du ames-giro sortzailearen ihardura hori izendatzeko. Bretonek dio: "Idazkera automatikoa eta ametsak erregistratzeak badute abantaila bat, alegia estilo handiko ezagupen-elementuak eskaintzen dizkiotela kritika ahalgetuari, eta balore liriko berrantolaketa orokor bat egiteko modua ahalbidetzen; gizakia izena duen barnegune ugari kutxa handi hori ad infinitum irekitzeko giltza izan daiteke hori." (Lehen manifestu surrealista, 1924)